# N-I eta A-636 errepideen arteko lotuneak gauez itxita egongo dira Olaberrian eta Beasainen




***Abuztuaren 8 eta 9an, astelehena eta asteartea, 20: 00etatik 07: 00etara***

Bidegi egiten ari den Beasain eta Ormaiztegi arteko A-636 errepideko zorua birgaitzeko lanen barruan, abuztuaren 8 eta 9an, astelehena eta asteartean, N-I eta A-636 errepideen arteko lotuneak fresatuko dira Olaberrian eta Beasainen. Hori dela eta, erreiak itxita egongo dira 20:00etatik 07:00etara.

Lehenengo mozketa, astelehenean, hilak 8, N-I errepideak A-636arekin Irunerako noranzkoan lotura egiten duen Olaberriako 417B irteeran izango da. Bitarte horretan N-I errepidetik jarraitzea gomendatzen da Beasaingo 419 irteeraraino, eta hemen noranzkoa aldatu, A-636 errepidearekin lotzeko.

Asteartean, hilak 9, Olaberriako 417B irteera berriro itxiko da eta Beasaingo 418 lotunea ere itxiko da Gasteiz noranzkoan. A-636 errepiderantz doazen trafikoek GI-2632 errepidea erabili beharko dute Ormaiztegiraino eta autobiarekin bat egin. Bi gau horietan, A-636 errepidetik N-I errepiderako sarbideak irekita egongo dira.

**Irizarreko biribilgunea Ormaiztegin**

Aurretik, abuztuaren 7an, igandean, Ormaiztegiko Irizarreko biribilgunetik autobiarako sarrera eta irteera adarrak itxita egongo dira. Itxiturak bi noranzkoetako sarrerako adarrei eta Bergara norabideko irteerako adarrari eragingo die. Mozketak 21: 00etatik 07:00etara egingo dira.

Bestalde, asteleheneko lehen orduan, 00:00etatik 07:00etara, Beasain-Olaberriako 0 irteera itxita egongo da Gasteiz noranzkoan. Itxierek irauten duten bitartean, ibilgailuek GI-2632 errepidea erabili beharko dute. Lan horiek guztiak gauez egingo dira, trafikoari ahalik eta gutxien eragiteko.

A-636 errepideko zoruaren egitura birgaitzeko proiektuak 4.117.295 €-ko aurrekontua du, gehi BEZa, eta 7 hilabeteko egikaritze-epea. Bidegik autobiaren erabiltzaileek sortutako funtsekin egingo dio aurre inbertsioari.

Zarautz, 2022/08/05

# Cierres nocturnos de los enlaces de la N-I con la A-636 en Olaberria y Beasain




***El lunes y martes 8 y 9 de agosto, de 20:00h a 07:00h***

Dentro de los trabajos de rehabilitación del firme de la A-636 entre Beasain y Ormaiztegi que está ejecutando Bidegi, el lunes y el martes, 8 y 9 de agosto, se procederá al fresado de los enlaces de la N-I con la A-636 en Olaberria y Beasain. Con tal motivo los carriles permanecerán cerrados entre las 20:00h y las 07:00h.

El primero de los cortes, el lunes 8, afectará a la salida 417B de la N-I en Olaberria que hace de enlace con la A-636 en dirección Irun. Como alternativa se recomienda seguir por la N-I hasta la salida 419 de Beasain y efectuar el cambio de sentido para incorporarse a la A-636.

El martes 9 se volverá a cerrar la salida 417B de Olaberria y también se cortará el enlace 418 de Beasain en dirección Vitoria-Gasteiz. Los tráficos que se dirijan hacia la A-636 deberán utilizar la carretera GI-2632 hasta Ormaiztegi y enlazar con la autovía. Durante estas dos noches los accesos desde la A-636 a la N-I estarán abiertos.

**Rotonda de Irizar en Ormaiztegi**

Previamente, el domingo 7 de agosto los ramales de entrada y salida a la autovía desde la rotonda de Irizar en Ormaiztegi estarán cerrados. El cierre afectará a los ramales de entrada en ambas direcciones y al ramal de salida sentido Bergara. Los cortes se llevarán a cabo desde las 21:00h hasta las 07:00h.

Por otro lado a primera hora del lunes, de 00:00h a 07:00h la salida 0 a Beasain-Olaberria sentido Vitoria-Gasteiz permanecerá cerrada. Mientras duren los cierres los vehículos deberán utilizar la carretera GI-2632. Todos estos trabajos se ejecutarán en horario nocturno a fin de minimizar las afecciones al tráfico.

El proyecto de rehabilitación estructural del firme de la A-636 cuenta con un presupuesto de 4.117.295€ más IVA y un plazo de ejecución de 7 meses. Bidegi hará frente a la inversión con los fondos generados por los usuarios de la autovía.

Zarautz, 2022/08/05